

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 136/2024 Erabakia, martxoaren 12koa. Onestea nekazaritzako mahastien aseguruak kontratatzeko laguntzen 2024ko kanpainako deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 30eko 22/2020 Foru Dekretuaren bidez (otsailaren 9ko 5/2021 Foru Dekretuak eta martxoaren 22ko 13/2022 Foru Dekretuak aldatua), onespina eman zitzairen nekazaritza aseguruak kontratatzeko laguntzak emateko oinarriari, eta mahastietako aseguruari dagokien lerroa lagundu zen diruz, beste aseguru lerro batzuen artean (ardogintzako mahatsaren ustiatagirako aseguruak edo lerro baliokidea urteko ekitaldi bakoitzean, Araban aplikatzekoa bada).

Eskaera horiek aurkezteko epearen eta moduaren barruan, aipatutako dekretuaren 7. artikulua xedatzen du urtero deialdi bat onetsiko dela. Deialdian, urtero onar daitezkeen aseguru lerroak, eskaerak aurkezteko epea, eta laguntzak emateko erabiliko diren kredituak zehaztuko dira.

Mahastien aseguruetarako laguntzen 2024rako deialdia onetsi behar da, eta horri aurre egiteko behar besteko kreditua gorde.

Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko gastuen aurrekontuan 40104.G/419401/47900402 "Mahastien aseguruaren kontratazioa sustatzea" partida dago; beraz, laguntza horien 2024rako deialdia onetsi behar da.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta, horregatik, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea mahastien aseguruak kontratatzeko laguntzen 2024ko deialdiari, zeina Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 30eko 22/2020 Foru Dekretuan xedatutakoak arautuko baitu (otsailaren 9ko 5/2021 eta martxoaren 22ko 13/2022 foru dekretuen bidez aldatu zen foru dekretu hori), xehetasun hauen arabera:

– Diruz lagundu daitezkeen aseguru motak: 2023an indarrean dagoen Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Plan Nazionalean, zeina Arabako Lurralde Historikoan dauden lurzatiaren ardogintzako mahatsari aplikatzekoa baitzaio, jasotako aseguru lerro eta moduluen barruan dagoen edozein.

– Adin betekizuna: 2024rako ezarritako erretirorako adin ofiziala 66 urte eta 4 hilabete da.

– Eskaerak aurkezteko epea: ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2024ko apirilaren 30era arte.

– Eskaerak leku hauetan aurkeztu behar dira:

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, betiere telematikoki aurkeztu behar dute, egoitza elektronikoaren bidez <https://egoitza.araba.eus/es/-/ayudas-seguro-vinedos>, pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez elkargoko kide izatera behartzen duen jarduera profesional batean ari direnek (jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako), eta administrazioarekiko harremanak nahitaez bide elektronikoz izan behar dituen interesdun bat ordezkatzan dutenak.

– Kreditu erreserba: 240.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko gastu aurrekontuaren 40104. G/419401/47900402 “Mahastien aseguruaren kontratazioa sustatzea” partidaren kontura. Dagokionean xedatu eta ordainduko zaie diru kopuru hori deialdiaren oinarri arautzaileek eskatutako betekizunak betetzen dituzten laguntza eskatzaileei.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidaren edozein zioreratik gerta daitekeen kreditu gehikuntzen bidez ere.

Bigarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko titularrari ahalmena ematea laguntza lerro honetarako deialdia garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beraren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 18a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua

AMAIA BARREDO MARTÍN

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA